

INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2022KO MAIATZA

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduera % 9,1 hazi zen 2022ko maiatzean


2022ko lehen bost hilabeteetako metatuan, industria-produkzioaren indizeak % 7,4ko hazkundera izan du.

Eustaten datuen arabera, 2022ko maiatzean Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa 2021eko hil berean izandakoa baino % 9,1 handiagoa izan zen, lan-egutegi homogeneoari dagokionez.

2022ko maiatza aurreko hilabetearekin alderatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduera % 0,7 hazi da, urtaroen eragina zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko maiatzeko indizearen bilakaerak, 2021eko maiatzaren aldean, jokabide positiboa izan du industria-sektore nagusi guztietan: *Energiaren* sektoreak % 20,2ko hazkundera izan du ekoizpenean (sektore honetan energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren finantza sartzen dira), eta *Ekipo-ondasunek* (bertan ibilgailu motordunen fabrikazioa, lokomotorren eta trenbide-materialaren eraikuntza eta eraikuntza aeronautikoa edo ontzigintza sartzen dira) % 14,4 egin dute gora.

Kontsumo-ondasunek, oro har, % 7,3ko urte arteko hazkundera izan dute, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* % 9,3ko eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* % 0,7ko gehikuntzak eraginda. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* epigrafean, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketa- eta higiene-produktuen fabrikazioa eta janzteko arropen ekoizpena agertzen dira. Etxeko tresnen eta altzarien fabrikazioa dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* sektorean sartzen diren jarduerak.

Tarteko ondasunek, bestalde, % 3,9 egin dute gora. Azken sektore horretan sartzen dira metalurgiako eta produktu metalikoen fabrikazioko jarduerak, industria kimikoa, eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Maiatza 2022

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	9,1	7,4	0,7
Araba/Álava	13,3	6,3	4,2
Bizkaia	9,3	8,9	-0,4
Gipuzkoa	6,3	6,6	-0,1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	7,3	6,9	0,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	0,7	0,2	-0,4
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	9,3	8,7	0,3
Ekipo-ondasunak	14,4	14,1	1,7
Bitarteko ondasunak	3,9	2,4	0,7
Energia	20,2	11,4	6,2

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hilera arte metatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2022ko Uztailaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, euskal industrian pisurik handienekoa duten sektoreen artean, 2022ko maiatzean urte arteko hazkunderik handiena izan dutenak hauek izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 21,9), *Garraio-materiala* (% 21,8) eta *Makineria eta ekipoa* (% 11,6). Aitzitik, ekoizpenean jaitsiera izan duen sektore bakarra *Kautxua eta plastikoa* izan da, % 2,5eko jaitsierarekin.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Maiatza 2022

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	1,6
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	2,9
Kautxua eta plastikoak	-2,5
Metalurgia eta produktu metalikoak	8,5
Materiala eta tresna elektrikoak	5,5
Makineria eta tresneria	11,6
Garraio-materiala	21,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	21,9

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeke industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2022ko Uztailaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da maiatzean hiru lurralde historikoetan: Araban % 13,3ko igoera izan da, Bizkaian % 9,3koa eta Gipuzkoan, berriz, % 6,3koa.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Euri esker, maiatzeko indizea laginaren % 92,73ko estaldurarekin kalkulatu da.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62